

38 ■ King Vidorren heriotza urteurrena



Zinemagileak zinemaren historiarekin batera egin zuen bere ibilbidea, zuzendarien artean luzeenetakoa.



46-47 ■ Bizkaiko herririk garaia

Ubide ondare aberatsekoa da eta mendi ugari ditu inguruan; egun-pasarako aukera asko ditu.

galeusca ›

Bospasei irudi, irudimenarentzat

Lugo ezagutzeko bisita gidatua egin dute Galiziako, Euskal Herriko eta Kataluniako idazleek. Hiriko museoa, harresia, katedrala, erromatar hiria eta plaza nagusia ikusi dituzte, besteak beste.

A. MUÑOA

Lugo ■ Berriemalde berezia

Emagin eta ama, baso sakratu: zure zuhaitzak orain harrizko dorreak dira, hargintza eta zementu». Horrela hasten da Manuel Mariak Lugori egindako poema.

Beha lainoz estalirik dago gaur Lugo. Ez da ageri zuhaitzik, ezta harrizko dorreerik ere. Ategris handia bakarrik. Lugoko museoko atea da. Pare pare, Francisco Aseroen eskultura pintatua azaldu da: San Frantziskoren 5 zauriak.

«Bospasei irudiren zertzeladarekin utzi nahi zaiztuzte gaur, bidean hasperen egin, irudikatu eta arnas berrituta itzul zaitezten bisitatik», esan die Lois Dieguez gidak galeuscarrei.

Museotik atera eta Rua Novan barna abiatu dira Dieguezaren atzetik. Batzuk argazki makinak eskuetan dituztela doaz; beste batzuk, berriz, apuntetxoak idazten ari dira. Txaketak, txanoak, bufandak... soinean, hotz egiten du eta. Kale estua da Rua Nova, garai bateko gurdientzat egina, nonbait. Bi aldeetara pareta okerreko etxe ilarra luzea altxatzen da. «Hemen etxeak makuluak erabiliz igotzen dira», esaten zuen Luis Pimentel poeta lugotarrak.

«Erromatarrek eraikitako partean gaude», azaldu du gidak eta Praza do Campora iritsi dira. Iturri bat dago erdi-erdian. Lehen etxetarako ura putzu horretatik ateratzen zuten; orain edozein bisitari-entzako erakargarri da. Galiziako, Euskal Herriko eta Herrialde Katalanetako idazleak gora begira jarri dira, iturriaren puntara. Lainoa badoa eta argitzen ari du. Irudi bat dago puntan: San Vicente da. «Lugoren historia lehenik erromatarrek eta gero gotzainek idatzi zutela esaten zuen Pimentelek eta ez zuen arrazoirik falta».

Plaza bazterreko etxera begira jarri da gida eta haren atzetik idazleak ere bai. Han bizi izan zen Cesario Sanchez poeta ourensearra. Uraren hotsak inspiratuta behin baino gehiagotan idatzi zion iturriari: «Maite dut hitzaren ametsa, Niretzat ura eta iturria, izarra eta iturria: ura harriz jantzia», dio bertso batean.

Plazan behera abiatu dira. Aldamioak daude aldeez alde: «Lehenengo burgoa berraitkitzen ari dira. Baina erraza ere ez da, hasten diren lekuan hasten direla ere, erromatarren garaiko aztarnak bilatzen dituzte eta». Zutabe erromanikoak azaldu dira ezkerretako atarian: erromatarren termetarako sarreda.

Rua do Miñon behera egin eta balkoi altuko jauregi zurira iritsi dira. «Galiziako barrokoa diferentia da, bere nortasuna du eta hau gure arkitektura barrokoaren adibiderik ederrena da». Orain eraberritzen ari dira eta laster hotela egongo da garai bateko nobleen etxean.

GIZADIAREN HONDAREA. «Parerik ez duen altxorra da. Zirkulu guztia osorik mantendu da, beste inon ez bezala». Lugoko harresiaz ari da Dieguez. Harrizko zirkulua da, harrespila. III. mendean eraikia, 2.200 metro inguruko luzerakoa eta hamar metroko altuerakoa. Gizadiaren ondare izendatu zuen 2000n Unescok.

Porta do Carmenetik iritsi dira bisitariak harresiaren altzora. Erromatarren hiria sartzeko dagoen hamar ateetako bat da. Adokinezko malkarrean gora egin dute, harresiaren puntara igotzeko irrikaz.

Hiribildua: etxeak, jauregiak, plazak eta monumentuak ikusten dira alderdi batean, eta katedrala. Bestean, berriz, sekulako paisaia: mendiak eta basoak urrutian; zelalaiak eta soroak gertu xego, herrixkaren bat ere bai; eta etxe dorre altuak aurrez aurre. «Hemendik garbi ikusten da nolako kontrola zeukaten Erromako soldaduek».

Garai bateko botere nahirik ez da orain ageri. Batzuentzako zena denentzako da orain. Bisitari ugari dabilta, baina baita lugotarrak ere: Bi emakume azaldu dira pasioan, neska gazte bat korrika atzetik eta bizikletan mutil bat urrutian.



Lugoko katedraletik atera eta plaza nagusira doaz idazleak, han bisita gidatua amaitzeko. ARANTZAZU MUÑOA

Harresiaren alde batetik bestera, katedralaren parean daude orain. Aurrealde neoklasikora jaitsi dira, Santiagoko aterantz. «Apur bat hondatua dago, baina joan gaitezen barrura». Begi Handien Ama Birjinaren kaperara jo-

an dira zuzenean: Fernando de Casasek egindako arkitektura barrokoa da: «Ez dut ezer esango, begiratu eta gozatu».

Iparalde sarreratik atera, eta plaza nagusira joan dira han bisita gidatua amaitzera. Pimentelen

oroimenez jarritako eskulturaren aldamenen gelditu dira, plaza kantoiko etxetik haraxe begira idazten baitzituen hark poesia gehienak. «Pimentel gurekin dela, amaitu da bisita, irudimenez beteta?».

BERRIAK gonbidatzen zaitu 40 sarrera ditugu harpidedunentzat

VI. nazioarteko trikitixa JAIALDIA

D O N O S T I A

40 sarrera

KURSAALgo ganbara aretoan,
2007ko AZAROAREN 10ean, 19.00etan



deitu: 943-30 43 45

aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**